

Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki!



LOMCEri EZ!

Espainiar Gobernuak LOMCE hezkuntza erreforma basatia onartu eta indarrean jarri du jada.

2014-15 ikasturtean abian jartzeko arazo teknikoez harago, datorren ikasturtean zein hurrengoetan lege honen aplikazioa ekiditeko eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza sistema egituratzeko, pausoak ematea ezinbestekoa dugu.

Nabaria da, Euskal Herriko hezkuntza eragile gehienon, ikasle, familia, langile eta beste hainbat elkarte eta erakundeon erabateko aurkakotasuna hezkuntza erreformarekiko. Argi adierazi dugu zentralizatzailea, adoktrinatzailea, uniformatzailea, atzerakoa, segregatzailea eta elitista den lege hau Euskal Herrian inposatzea inola ere ez dugula onartzen.

Bide horretan, Euskal Herriko alderdi politikoei eta Nafarroa eta EAEko legebiltzar eta gobernuei behin eta berriro eskatu diegu eta eskatzen diegu LOMCEa gure herriko ikastetxeetan inola ere ez dezatela aplika eta horretarako bitarteko guztiak erabil ditzatela. Modu berean, hezkuntza eragileok LOMCEa gure herrian aplika ez dadin estrategia komunak eta bitartekoak lantzen ari gara eta ikasturte bukaerarako hezkuntzan parte hartzen dugun kolektibo ezberdinekin partekatuko ditugu.

Honekin batera, ezinbestekoa deritzogu azken hamarkada luzetan inposatu nahi izan dizkiguten lege eta dekretuen gaineratik ehuntzen joan garen bestelako hezkuntza ereduari jarraipena eman eta gure hezkuntza sistema propioaren garapenean pauso berriak ematea. Askok dugu oraindik egiteko, baina orain arteko bide hori aintzat hartuz, baditugu abiapuntu diren eta garatzeko premia dutela uste dugun adostasun zabala batzen duten oinarrizko edukiak.

Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza eraikitzerakoan ondorengo ardatzak hartu nahi ditugu hezkuntza eragile ezberdinen artean, ikastetxeetako ikasle, familia eta langileekin eta herritarrekin batera landu eta garatzeko:

- Ikasle garapen beharrak eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala (pertsonalizatua, inklusiboa, hezkidetzatzailea, kritikoa, laikoa...) eta horretarako behar diren baliabide guztiak izango dituen.
- Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen.
- Curriculum propioa izango duena.
- Ikastetxeen autonomia eta parte hartze eta funtzionamendu demokratikoa bermatuko duena.

Bai LOMCEri aurre egiteko baita gure hezkuntza propioa eraikitze bidean ere ezinbestekoa da hezkuntzan dihardugun guztion eta herritar ororen inplikazioa. Horregatik, ikasturte honen bukaerarako eta datorrenerako ikastetxe eta herri ezberdinetan antolatuko ditugun ekimenetan eta luzatuko ditugun proposamenetan parte hartzea eskatzen dizuegu.

Guztion artean lor dezakegu!
Euskal Herrian Gure Hezkuntza Eraiki!
LOMCEri EZ!

Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki!



no a la LOMCE

El Gobierno Español ha aprobado la brutal reforma educativa de la LOMCE y ya está en vigor.

Más allá de los problemas técnicos que puede tener para ser implantada en el curso 2014-2015, durante el próximo curso y los siguientes, tendremos que dar pasos para evitar su aplicación y para seguir construyendo el sistema educativo que queremos y necesitamos para Euskal Herria.

La mayoría de los agentes educativos, alumnado, familias y personal trabajador, así como otras asociaciones y entidades de Euskal Herria, han mostrado de una manera clara su rechazo a esta reforma educativa. Hemos dejado claro que no aceptamos, que esta ley centralizadora, adoctrinadora, uniformizadora, retrógrada, segregadora y elitista, se imponga en Euskal Herria.

En ese sentido, les hemos pedido y les seguimos pidiendo a los partidos políticos, Parlamentos y Gobiernos de Navarra y la Comunidad Autónoma Vasca que de ninguna manera se aplique la LOMCE en los centros educativos y que dediquen todos los recursos necesarios para ello. Al mismo tiempo, los diferentes agentes educativos, estamos trabajando en el desarrollo de estrategias comunes y medios que al final de curso compartiremos con el resto de colectivos del ámbito educativo para evitar que la LOMCE se aplique en nuestro pueblo.

Asimismo, creemos que por encima de las leyes y decretos que nos han querido imponer en las últimas décadas, es imprescindible dar nuevos pasos y seguir desarrollando el sistema educativo propio que hemos ido tejiendo. Todavía nos queda mucho por hacer, pero mediante amplios acuerdos hemos conseguido consensuar los contenidos básicos a desarrollar que nos sirven como base y punto de partida en este camino.

Estos son los ejes que hemos acordado los diferentes agentes educativos, para trabajar y desarrollar junto con el alumnado, familias y personal trabajador en los centros escolares y con la ciudadanía en general, a la hora de construir la educación que queremos y necesitamos en Euskal Herria:

- Una educación integral que garantice los derechos y las necesidades de desarrollo de todo el alumnado y que disponga para ello de los recursos necesarios.
- Una educación que formará alumnado euskaldun y plurilingüe.
- Una educación basada en nuestro propio Curriculum.
- Una educación que garantice la participación y el funcionamiento democrático y la autonomía de los centros educativos.

Tanto para hacer frente a la LOMCE como para construir nuestra educación propia, será necesaria la implicación de todas las personas que trabajamos en educación y de la ciudadanía en general. Por eso, os pedimos que participéis en las diferentes iniciativas y propuestas que realizaremos en centros educativos y pueblos durante este final de curso y a lo largo del siguiente.

¡Entre todos y todas los podemos conseguir!

¡Construyamos nuestra educación en Euskal Herria!

¡NO A LA LOMCE!